



ASTEARTEA

2022/06/28

10. urtea, 1.625. zenbakia

107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85 €

R. CALVO



Tolosaldeaz gozatzeko eskaintza zabala prestatu dute

Bisitarien goranzko joerari eutsi eta kultura, natura eta gastronomia erakusteko aukera ugari izango dira udan // **2**

Uzkudun eta Arrospidek irabazi dute txapelketa

I. Emakumeen Binakako Sega-Sail Lehiaketan sei bikote lehiatu dira eta leaburuarra gailendu da // **7**

Errebotea Sutan txapelketa atzeratu dute // 7

ALBIZTUR PILOTAREN FESTA HANDIA

VI. Ataria Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte Albizturko Mendikute pilotalekuan; eskuz nahiz palaz, Tolosaldeko pilota elkartetako eta eskoletako 300 pilotari inguruk hartu dute parte txapelketan // **6-7**



BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE ITXIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!

 **175.476€-tik hasita**

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

Eskualdeko erakusle iho txikiak munduari zabaltzeko prestatu dituzte

Tolosaldeko turismo eragile ezberdinek bat eginda, eskualdeaz gozatzeko eskaintza zabala osatu dute; bisitarien goranzko joerari eutsi nahi diote

Eneritz Maiz Etxarri Amezketak

Tolosaldeak duen ondare, kultura, natura eta gastronomia aberastasuna ezagutzera emateko prest dira eskualdeko hogeita zortzi herriak. Eskualdeko eta mundu mailako bisitariak erakarrari nahi dituzte, eta *Naturarekin konektatu, gure kulturarekin ikasi eta bizipenekin gozatu... bizi Tolosaldea nahieran* lelopean aurkeztu dute udako eskaintza. Eskualdeko herriek eta eragile ezberdinek bat eginda aurkeztu dute udari begira prestatu duten eskaintza, eta aurtengo beritasuna Amezketako Pello Zabala gunea denez, bertan eman dute ezagutzera.

Bada zer ikusi, zer jan eta zer edan Tolosaldean, eta mendi ibilbideak ere bisitarien eskura jarriak dituztela esan du Iker Urruzola Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak. Helburutzat turismo jasagarria dute, eta tokian tokikoak bultzatzen dituzte. Eskualdeaz hitz egiterakoan, eta herri txikiez osatua izaki, Urruzolak «benetakotasuna» azpimarratu du ezaugarritzat.

Pixkana bada ere, lo tokiak gora doazela esan du eta egun 609 dituela eskualdeak, eta horien okupazio datuek ere goranzko joera izan dutela azaldu du. Dagoeneko 2019ko datuak gainditu direla eta udako aurreikuspenak bete direla adierazi du. Elkarlana dagoela horren atzean nabarmendu du, eta aurrera be-



Tolosaldeko turismoari lotutako eragile publiko eta pribatu ezberdinek aurkeztu dute eskaintza, Amezketan. E. MAIZ

TOLOSALDEKO UDAKO ESKAINTZA

Abaltzisketa

Zuhaitz parkea. Uztaila eta abuztuaren egunero irekita.

Arku tiroa eta orientazio jolasa. Egunero (aurrez hitzartuta).

Arroila jaitsiera. Osinberden, uztailak 17 eta 24; abuztuak 14 eta 21 (aurrez hitzartuta taldeentzat beste egun batzuetan ere egin daiteke).

Eskalada. Zazpi Iturrin, Aralar. (Aurrez hitzartuta taldeentzat).

Amezketak

Argi galduren bila. San Bartolome eliza eta Argizaiolak. Uztailak 9 eta 23, Abuztuak 6 eta 20. 18:00etan. 3 euro pertsonako.

Talo tailerra. Uztailak 2, 16 eta 30; Abuztuak 13 eta 27. 18:00etan. 6 euro pertsonako.

Igandeak. 12:00–14:00. Bisita librea eta pintxoak jateko aukera. Sarrera 3 euro + 2 euro bertako produktuekin egindako pintxoak eta edaria.

Altzo

Altzoko erraldoiaren ibilbide gidatua. Uztailaren 15ean, 17:00–19:30. 3 euro pertsonako. Erreserbak turismo bulegoan.

Alkiza

Urmara museoa. Basoan dagoen aire libreko museora bisita gidatua, aurrez hitzartuta.

Fagus Alkiza. Interpretazio zentroko erakusketa berritua ezagutzeko bisita gidatuak. Uztailak 8 eta 29, 11:00etan, euskaraz. Horrez gain, urmael berriaren eta hegazti harrapa-

rien inguruko bisitak eta uztailaren 22an, Euskaltzaindiaren omenaldia eta erakusketaren inaugurazioa.

Larraul

Ekomuseoa. Museo etnografikora bisita gidatua, aurrez hitzartuta.

Tolosa

Bisita gidatuen eskaintza. Astelehenetik ostiralera: 10:00etan, Tolosako Alde Zaharra eta 11:30ean, Andre Maria eliza eta gangak. Larunbatetan: 10:00etan, Alde Zaharra; 11:30ean, azoka eta 13:00etan, Andre Maria eliza eta gangak.

Topic. Asteartetik ostiralera: 10:00–13:00 / 16:00–19:00. Asteburuak eta jai egunak: 10:00–14:00 / 15:30–19:30.

gira, bide horretan jarraitzeko beharra azpimarratu du. Bertako nahiz kanpoko izan, Tolosaldea bisitatzera animatu dituzte herritarrek eragileek.

GASTRONOMIAK BERE TOKIA DU

Eskualdea bisitatzeko aukereta-ko bat bisita gidatu bidez da, eta horietako hainbat gastronomia-ekin lotuta daude. Esaterako, Txumitxa, Ibarrako piperraren landaketara bisita eta dastaketa egiteko aukera izango da abuztuaren 7an eta 14an, 12:00etan.

Bestalde, Rafa Gorrotxategiren museoan bisita libreak izango dira larunbatetik astelehenera 09:00etatik 14:00etara, eta asteartetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Aldiz, bisita gidatuak eta txokolate tailerrak aurrez hitzartu beharko dira.

Urdapilleta, Euskal txerria hezten duen Elola baserrira eta txerriak bizi diren basora bisita eta dastaketa egin nahi dutenek, berriaz, aurrez hitzartu beharko dute eguna eta ordua.

Amasako Hika Txakolindegiko mahastietara bisita eta dastaketara joateko ere, aldezturik hartu beharko da ordua. Aldiz, Adunako Aburuza sagardotegian, ostiraletan 13:00etan dastaketa eta bazkaria egiteko aukera izango da, bisitarik gabe. Eta ostiraletan eta larunbatetan 12:30etik 19:30era bisita gidatua eta otordua eskainiko dituzte.

Tolosako turismo bulegoari dagokionean, ostiraletik aurrera, egunero egongo da zabalik, eta ordutegia ere zabalagoa izango du: astelehenetik igandera, 10:00etatik 14:30era eta 15:30etik 19:00etara

Hilberriak eta urteurrenak



Juan Agoües Eizaguirre

- Goian bego -

*Urazpiko ehiztari
lupi ta kabratxo...
minbizia bizimin
izan huen atzo.
San Juan bezperan suak
zerura hau jaso,
gero arte lehengusu
lagun nahiz aitatxo,
izan haizenagatik
mila esker Juantxo!*

Gorka eta Ane,
Olatz, Amaia, Joxe, Arantza

ZARAUTZen, 2022ko ekainaren 28a



- X. URTEURRENA -

Xiker Urretabizkaia Gurrutxaga

1995-11-3 / 2012-6-28

*Mina ez, oinazea tantaka dugu
hitz bakoitzean orain, oroitzapenekin
josiaz sendatu behar zauria.*

ALTZAGAn, 2022ko ekainaren 28an

Ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu

San Joan festa beteak Belauntza eta Abaltzisketan

Herritarrek askotariko ekitaldiak izan dituzte azken egunetan herriko jaiak ospatzeko; herenegun ohiko zaldi lasterketa izan zuten Abaltzisketan



Bazkaria izan zuten Abaltzisketan San Joan egunean eta herenegun zaldi lasterketa ikusi ahal izan zuten. I.T.G./L.C.

Erredakzioa

Abaltzisketa/Belauntza

Abaltzisketa eta Belauntzan San Joan festak ospatzen dituzte. Urteko egunik berezienak izaki, egitarau zabala prestatu ohi dute eta adin guztietako bizilagunek izaten dute festekin goatzeko aukera.

Belauntzan San Joan bezperan bota zuten jaiei hasiera emateko txupinazoa eta umeak izan ziren eguneko protagonistak frontoian jarritako jolas eta taillerrei esker. Igandera bitarteko egitaraua prestatu dute aurten goan eta tartean toka, bolo zein mus txapelketak, ipuin kontalariak eta herri afaria izan dituzte. Herriko jaiak ohiko saiheski eta

sagardo dastatzearekin amaitu dituzte.

Abaltzisketan ere San Joan bezperarekin hasi zuten festa. Hemen ere askotariko ekitaldiak izan dituzte; musika, haurrentzako jolasak, sagardo dastatzea, eta bertso bazkaria, besteak beste.

SEI PARTE HARTZAILE

Jaiak herenegun bukatu zituzten. Gazteen pilota partidak izan zituzten eguna hasteko eta arratsaldean XXI. Zaldi Lasterketa egin zuten Amezketatik Abaltzisketara. Aurten sei parte hartzaile izan dira. Aire Ahizpen kontzertuaren ondotik, herri afariarekin amaitu zituzten jaiak.



Lopene ganadutegiko zezentxoekin eta frontoian jarritako haur jolasekin aritu dira belauntzarrak. I.S.A./L.C.



EKAITZAREN OSTEAN, SUA

Hiru urteren ondoren, ohiko moduan egin zuten San Joan suaren inguruko errituala Tolosan. Hori bai, ekitaldia hasi baino ordu erdi lehenago zaparrada mardula izan zen. Azkenean, ez kilen soinuekin batera, alkateak lore sorta sutara bota zuen eta Udal Musika Bandak *San Joan zortzikoa* jo zuen. J.A.D.



HERRI BAT SUAREN BUELTAN

San Joan bezperako suarekin eman zieten hasiera Abaltzisketako jaiei. Aurten lehendabizikoz egin dute Txalburuaren jaitsiera, baina protagonismoa, beste behin, dantzariak izan dute. 45 herritar aritu ziren dantzan, suaren inguruan. Herri giroan eman zioten hasiera herriko jaiei. I.G.L.



Ezkerean, Udal Txistulari Bandako kideak prozesioan, eta eskuinean eskopetarien konpainiak Plaza Zaharrean udalbatzaren aurrean deskargak egiten. R. CALVO

Une ederrak utzi ditu

Katixa Perek bota zuen San Joan bezperan suziria, eta igandera bitarte, helduen eguna, bordontzariak, erraldoiak, eskopetariak edota txistularien kontzertua izan dira

Erredakzioa

Igaro dira sanjoanak, ohi bezala, oroimenerako une desberdin ugari utziz. Tradizioa mantenduz indarra hartzen doala erakutsi dute aurten ere Tolosako jaiek, eta horren erakusle parte hartze handia, esaterako eskopetarien konpainietan, 16 konpainien artean 1.600 eskopetari in-

guru aritu baitziren San Joan egunean herriko kaleetan deskargak eginez.

Egun handiko une berezietako bat bordondantzarien dantzak izaten dira, eta aurten are bereziagoak izan dira, lehen aldiz emakume bat izan baita kapitaina. Miren Nazabalek ilusio handiz hartu zuen ardura. Gainerakoan, eskopetarien alardea, txis-

tularien diana, prozesioa, erraldioen dantza edota udalbatzaren aureskua bezalako elementuek ez zuten hutsik egin.

Koadrillen egunarekin jai giroa aurreko asteburuan zabaldu zen arren, jaiei hasiera eman zien txupinazoa San Joan egunaren bezperan bota zuten. Katixa Perea kultur etxeko dantza tailerreko ballet irakasleak izan zuen

horren ardura 25 urte bete dituelako aurten dantza taldeak. Egindako lanaren aitortza dela aipatu zuen hunkituta txupinazoren unean.

Suziri nagusia bota aurretik, beste suziri bat ere bota zuten, helduen egunari hasiera eman ziona, hain zuzen. Helduek ere euren txokoa dute San Joan jaien egitarauan, eta ederki aprobe txatu zuten. Omenduak ere izan ziren tartean, Anjel Izagirre, Juan Bautista Aranzabe *Mate*, Mari Karmen Cuarteto eta Venceslao Jimenez, «jubilatu eta pentsiodunen alde lan handia egin dutelako».

Herri kirolek izan ohi dute lekua San Joan jaien barruan, eta hori larunbatean izan zen, eurari aurre eginez Gaztelako atearen babesean aritu zirelarik harri-jasotzaileak.

San Joan jaiak herenegun borobildu zituzten, emanaldi berezi batekin. Tolosako Udal Txistulari Bandak *Arnas berriz* izeneko saioa eskaini zuen, Euskal Herria plazan. Herriko musikari eta talde ugari izan ziren oholtzan askotariko piezak eskainiz, eta txistulari bandan 50 urte eman dituzten Xabier Zelaia *Txirrita* eta Juan Joxe Agirre *Ttanbor* omendu zituzten.



Santa Maria plazan, bordondantza, estreinakoz emakume bat kapitain dela, eta eskuinean, erraldoiak dantzan. R. CALVO



Ezkerrean, bordondantzariak Zumardiaundian, eta eskuinean, alkatea aurrekua dantzatzen Trianguloa plazan. E.MAIZ



Goian, ezkerrean, Udal Musika Bandako kideak, eta behean, herri kirol saioa. Eskuinean, erraldoiak eta eskopetarien konpainiak Euskal Herria plazan. R.CALVO



Ezkerrean, helduen egunean omendutako jubilatuak. Erdian, Xabier Zelaia eta Juan Joxe Agirre 'Arnas Berriz' kontzertuan omenduak. Eskuinean, Katixa Perea txupinazoaren unean. I.T./UDAL MUSIKA BANDA/ J.A.

Banatu dira txapelak

Albizturko Mendikute frontoiko harmailak beteta egon dira VI. Ataria Pilota Txapelketako finaletan; 24 pilotari aritu dira txapelaren bila, partida lehiatuak jokatu

Erredakzioa Albiztur

Bukatu da VI. Ataria Pilota Txapelketa. Albizturko Mendikute frontoian jokatu ziren larunbatean txapelketako sei finalak eta hitzordua arrakastatsua izan zen. 300 pilotari ingururekin hasi zen txapelketa eta 24 iritsi ziren finaletara. Pilotalekuko harmailak beteta egon ziren eta pilota partida bikainak ikusteko aukera egon zen.

Lehenengo finala benjamin B mailakoen artekoa izan zen, eskuzko modalitatean. Tolosa CF elkarteko Alustiza tolosarrak eta Altuna berrobitarrak 16-9 irabazi zieten Zazpi Itturri elkarteko Artola eta Gorostidi amezketareri.

Hurrengo finalean ere eskuz aritu ziren, benjamin A mailan. Tolosa CF-ko bi bikote aritu ziren lehian eta lauak tolosarrak. Aldazabal eta Zubelzuk 16-6 irabazi zien Huarte eta Olaetxea bikoteari.

Hirugarren finalean palaz jokatu zuten, benjamin eta alebin mailan. Atzapar elkarteko Mayoza eta Bejarano asteasuarrak 22-16 gailendu zitzaizen Txulobi elkarteko Polo eta X. Aburuza adunarrei.

Hurrengo finalean alebin mailakoek jokatu zuten, eskuz. Behar Zana elkarteko bi bikote aritu ziren nor baino, eta Eizagirre larrauldarrak eta Urkola asteasuarrak jantzi zituzten txapelak, 16-9 irabaziz Iraola asteasuarrari eta Iparragirre adunarriari.

Azken bi finaletan pilotari nagusienak aritu ziren, hau da, infantil mailakoak. Palaz, Juantorena albizturtarrak eta Luluaga altzotarrak 21-22 irabazi zieten Lasa eta Goikoetxea bidaniarrei.

Seigarren eta azken finalean, eskuz, Tolosa CF elkarteko Perurena ibartarrak eta Caminos tolosarrak 18-6 irabazi zieten Intxurre elkarteko M. Elola altzotarrari eta Tolosa CF elkarteko B. Elola albizturtarrari.

TOLOSALDEKO ATARIA-k eskerak ematen dizkie txapelketa antolatzen aritu diren pilota elkartek zein eskolei, batez ere bertako arduradunei, egindako lan guztiarengatik. Ezin ahaztu Al-

EMAITZAK

BENJAMIN B, ESKUZ

Alustiza-Altuna	16
Artola-Gorostidi	9

BENJAMIN A, ESKUZ

Huarte-Olaetxea	6
Aldazabal-Zubelzu	16

BENJAMINAK ETA ALEBINAK, PALAZ

Mayoz-Bejarano	22
Polo-X. Aburuza	16

ALEBINAK, ESKUZ

Eizagirre-Urkola	16
Iraola-Iparragirre	9

INFANTILAK, PALAZ

Lasa-Goikoetxea	21
Juantorena-Luluaga	22

INFANTILAK, ESKUZ

Perurena-Caminos	18
M. Elola-B. Elola	6

bizturko Udalarekin eta herriko pilota eskolarekin, aurtengo finala bertan antolatzen laguntzeagatik, eta baita txapelketa antolatzen lagundu duten bestelako laguntzaile eta babesleekin ere. Antolatzaileak aste honetan elkartuko dira txapelketaren balantzea egin eta hurrengo urtekoaren inguruan hitz egiteko.

Luis Galarraga da antolakuntzan aritu denetako bat. Bi urteko etenaren ondoren, aurtengoa Ataria Pilota Txapelketa antolatzerakoan kezka bazirela azaldu du. «Lehen ohituta geunden urtero aurrera egiten, baina etenarekin kezka genuen, besteak beste, pilotari kopuruarekin. Eta eragina izan du, pilotari batzuk bi urte hauetan utzi dutelako. Baina erantzuna oso ona izan da, eta baita antolakuntzaren aldetik ere», esan du Galarragak. Bestalde, umeek erakusten duten ilusioa nabarmendu du: «Adin horretan frontoira etorri, jolastu, arnasa hartzeko denbora hartu gabe aritzen dira, eta hori ikusita izugarrizko betekada ematen du».

Bestalde, txapelketa diruz laguntzeko txartelak saldu ziren eta zozketa Maite Larrartek irabazi zuen. Errigorako saski bat eskuratu zuen.



Benjamin B mailakoen finalaren une bat. REBEKA CALVO



Benjamin A mailakoek jokatu zuten finalaren une bat. REBEKA CALVO



Benjamin eta alebin mailakoen finalaren irudietako bat. REBEKA CALVO



Alebin mailakoen finalaren une bat. REBEKA CALVO



Infantil mailakoen finalaren une bat, palazko modalitatean. REBEKA CALVO



Infantil mailakoen finalaren une bat, eskuzko modalitatean. REBEKA CALVO



Hamabi segalariak sari banaketan. ALMITZA SEGA ELKARTEA

Uzkudun eta Arrospide leaburuarrak izan dira garaileak

Erredakzioa

Almitza Segalariak antolatuta, Elorrion jokatu da I. Emakumeen Binakako Segalari Lehiaketa, eta bertan sei bikotek parte hartu dute. Lehen txapelak eskualdera etorri dira, Luixa Uzkudun eta Izadi Arrospide leaburuarrak lortu baitute irabaztea.

Uzkudunek eta Arrospidek 16.00ko denbora behar izan dute 300 metro karratuko saila ebakitzeko. Bigarrenak Maide Garmendia eta Uxue Iruretagoiena izan dira, 17.03ko denbora eginez. Hirugarren postua Malou

Henriksen eta Susana Lopezentzat izan da 17.29rekin. Laugarren postuan Irati Astondoa eta Jugatx Agirre berastegierra sailkatu dira 17.42rekin. Bosgarren postua Alaitz Imaz hernialdearra eta Graxi Elosegirentzat izan da, 18.03ko denbora eginez. Azkenik, seigarren postuan sailkatu dira Ainara Otamendi ibartarra eta Angels Breto, 18.34rekin.

Almitzatik azaldu dutenez, «saio bikaina» burutu zuten hamabi segalariak eta nabarmendu du hainbat parte hartzaileentzat lehendabiziko aldia zela lan luzean lehiatzen.

Naia Amondarain bigarren, 23 urtez azpiko Espainiakoan

TXIRRINDULARITZA // Naia Amondarain txirrindulari ibartarrak bigarren postua lortu du 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketan (10. elite mailakoak kontuan hartuta). Horrez gain, laugarrena izan da erlojuaren kontrako txapelketan maila horretan (14. elitekoak kontuan hartuta). Eukene Larrarte tolosarrak ere parte hartu du, elite mailan, eta lineako txapelketan 24. izan da eta erlojuaren aurka-koan 18. postua lortu du.

Nerea Eizagirre, Europako Txapelketatik kanpo

TOLOSA // Nerea Eizagirre futbolari tolosarrak aukera handiak zituen Espainiako selekzioarekin Europako Txapelketan parte hartzeko. Azken deialdia eman aurreko egonaldian izan da, baina azkenean bost geratu dira kanpoan eta horietako bat izan da Eizagirre.

Jexux Mari Mujika bakarrik saikatu da finalerako

AIZKORA // Bigarren mailako Gipuzkoako Aizkora Txapelketaren bi kanporaketak jokatu dira asteburuan, eta biak eskualdean izan dira. Eskualdeko hiru aizkolarik parte hartu dute eta horietatik Jexux Mari Mujika ibartarrak bakarrik lortu du finalerako sailkapena. Belauntzako kanporaketan lortu du Mujikak txartela, hirugarren postua eskuratuz. Kanporaketa bakoitzean hiru lehenak sailkatu dira. Belauntzan, lehen bi postuak Jokin Urretabizkaia eta Julen Gabirondorentzan izan dira. Unai Zabala txaramarrak ere parte hartu du kanporaketa horretan, baina bosgarren egin du. Berastegiko kanporaketan Ibon Garai-buru herritarrak parte hartu du, baina laugarren egin duenez, ez du finalerako txartela lortu berastegiarrak.

IRAGARKI LABURRAK

Alokagai

Jatetxe-taberna. Lizartzan jatetxe-taberna etxearekin alokatzen da, Jose Mari jatetxea. Etxeak hiru solairu, bost logela, bi egongela eta bi komun ditu. Interesa duenak, deitu telefono zenbaki honetara: 943 12 49 04.

ATZERATU EGIN DUTE

Behar Zana elkartearen 75. urteurrenaren ospakizunen barruan, Errebotea Sutan txapelketa jokatzekoa zen larunbatean, baina atzeratu egin behar izan zuten euriarengatik. Horren ordez, joko garbian eta palaz aritu ziren Behar Zana frontoian. Ziurrenik uda ostean egingo dute Behar Zana elkartearen errebote jokalaria eta jokalaria ohien arteko lehia. IRATI SAIZAR



ASTEARTEA, 2022KO EKAINAK 28
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



LGTBI+ komunitateari keinua egingo diote

Murala margotuko dute gaur Villabonan, bihar 'Zarata' proiektua izango da 'Iruran, eta etzi, 'Anarquía relacional' lana Tolosan

Erredakzioa

1969ko ekainaren 28an errebolta bat izan zen New Yorkeko Greenwich auzoko Stone Wall tabernan, eta gertakari haren ondorioz, gay, lesbiana, transexual, bisexual eta intersexualen askapen-mugimendua sortu zen. 1985. urtean, Stone Wallen gertatutakoak sinbolo bihurtu ziren, eta ekainaren 28a Gay Harrotasunaren Egun izendatzea erabaki zuten. Gerora, beste sexualitate anitz batzuekiko aitormena, ikusgaitasuna eta aldarrikapena ere gehituz joan dira, hala nola, lesbianak, transexualak, transgenderoak, bisexualak eta intersexualak. Bada, LGTBI+ Komunitatearen Nazioarteko Eguna da gaurkoa, eta egunarekin bat eginez, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Tolosaldean gaurko egunaren bueltan.

Iruran, esaterako, *Esnatu naiz* kabareta izan zen ikusgai atzo. Antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen ikuskizunak identitatea, giza-harremanak eta sexualitatea ditu hizpide.

Gaurkoan, bestalde, *Harrotu eta margotu!* lelopean Lurgatz Asanblada Feministak eta Akain Talde Feministak deituta mural bat margotuko dute Olaederra kiroldegian, 18:00etan.

Bihar, berriaz, LGBTI+ kolekti-



Kiroldegiko hesiak margotu zituzten Villabonan, pasa den urtean. J. MIRANDA

boaren parte diren hamar euskal artisten ahotsak entzungo dira, kolektiboaren inguruan kontzientzia sortzeko helburuz, *Zarata* proiektuan, Irurako kulturunean, 16:30ean.

Hurrengo egunean, hilaren 30ean, *Anarquía Relacional* antzezlan izango da ikusgai, Tolosako Topic zentroan, 19:30ean hasita. Mila Espiga eta Belen Cruz dira antzezlaneko aktoreak.

ADIERAZPENA ONARTUKO DUTE
Bestalde, gaur Amasa-Villabonako udaletxean egingo duten osoko bilkuran LGTBI+ Komunitatearen Eguneko adierazpena onartuko dute, beste hainbat udaletan egingo duten bezala.

Eta egunarekin bat eginez, beste urteetan egin bezala, Tolosako Zerkausia LGTBI+ banderaren koloreez koloreztatuko du Tolosako Udalak uztailaren 3ra arte.

AGENDA

Deialdiak

Larraul. Sanjoan ukendua eta xa-boiak egiteko ikastaroa, Pili Otaegirekin. 16:00. Sendabelarrak jasotzeko mendi buelta. 18:00. Ukenduen elaborazioa, Katilutxulo elkartearen. **Ikaztegieta.** Furgobaratza Baratze Parkean, 18:00etan: Ongarri tailerra. **Amasa-Villabona.** Lurgatz Asanblada Feministak eta Akain Talde Feministak deituta murala margotuko dute LGTBI+ Komunitatearen Nazioarteko Egunaren harira. **Amasa-Villabona.** Osoko bilkura, batzar aretoan, 19:30ean. **Tolosa.** Amaroako Antzerki Astea: Pailaztana Klown Taldearen *Inproklown*, Auzo-etxean, 20:00etan. **Tolosa.** Ombuaren itzal proiektuaren aurkezpena, kultur etxean, 19:00etan.

San Pedro jaiak

Tolosa. Urkizun: 20:00. Festen hasiera. Suziriak eta kanpaiak. **Asteasu.** 18:00. Herri kirol lehia. 20:00. Txupinazioa Joxe Angel Sarasolaren eskutik eta sorginaren jaitziera. Ondoren, kalejira. 21:00. Herri afaria, eta ondoren, Laskotxaranga. **Leaburu-Txarama.** 20:30. Barrikotea eta sardina jatea. Ondoren. *Amaraun* antzerki emanaldia.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
15:00. Amalurra.
Ingurumenari buruzko saioa.
16:00. Zebrabidea. Magazina.

28 KANALA

08:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
19:00. Elkarriketap (Ane Sarasua)
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Solstizio kontzertua

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. J. M. Sanchez. Kale Berria, 34. 943 69 1130.

TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Zabalzarretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro ederra. Goizean hodei batzuk ikusiko ditugu, baina orduak aurrera egin ahala giro eguzkitsua geratuko da. Haizeak goizean aldakor joko du, arratsaldean aldiz ipar-ekialdetik. Tenperatura igo egingo da, 23-24 graduan joz goia.

Bihar. Okerrera egingo du. Goizean hodeiak eta ostar-teak eta giro atsegina izango dugu. Egurditik aurrera hodeiak ugarituko dira eta arratsaldean euri zaparrada txiki batzuk izango ditugu. Tenperatura antzeko kokatuko da, 23-24 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



zozketak

Atarikideentzat **liburu bat** dugu



Maixa Zugastiren
Atarian
liburua

Zozketetan parte hartzeko **osteguneko** 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

ESKURATU MARIA ALTUNA ILUSTRATZAILEAK DISEINATUTAKO ATARIKO MATERIALA!



Deitu
943 65 56 95
edo
pasa bulegotik!



KATILUA	BOTILA	POLTSA	PACK-A
Atarikideak:	Atarikideak:	Atarikideak:	Atarikideak:
9 euro.	9 euro.	8 euro.	20 euro.
Atarikide ez direnak:	Atarikide ez direnak:	Atarikide ez direnak:	Atarikide ez direnak:
11 euro.	11 euro.	10 euro.	26 euro.